



4 GAZTEAK

Kuadrillategi eta Gaztekluba aurten ere abian

Tailerrak, jokoak, lehiaketak, film erakustaldiak, irteerak, Gazteburuak, KTG eguna, KTG asteburua... Kuadrillategi eta Gaztekluba egitasmoen eskutik, Lasarte-Oriako LH3 eta DBH4 maila arteko gazteek ez dute ostiral arratsaldetan eta hainbat asteburutan aspertzeko astirik izango. Hurrengo ostiralean izango dute bi egitasmoek lehen saioa. Kuadrillategiko izen-ematea gaur amaitzen da. Gazteklubekoa berriz, hurrengo astean zehar egingo da.



Gimnastika erakustaldiaz Kontu Kantoi bikotearen ipuin kontaketa umoretsuaz eta Lezoko, zein Biyak Bat elkarteko abesbatzen emanaldiez gozatu dute herriko nagusiek.

Nagusiak martxan

Ekintza ugari azken egunetan

Nagusien omenaldiko ekintzak amaitzeaz dira. Biyak Bat elkarteko kideek erritmo ederra dutela erakutsi dute astean zehar baina ekintza gehiago ere izango dira egunotan.

Gimnastika, zumba eta leroko dantzak. Biyak Bat elkarteko kideek osasunez ederki daudela argi geratu da aste honetan egin dituzten erakustaldietan.

Astelehen arratsaldean, umorea izan zen nagusi Biyak Bat egoitzan. Bea Egizabal eta Cesar Marcosen kontakizunek barre eta algarak eragin zituzten.

Asteartean, Lezoko eta Biyak Bat elkarteko abesbatzen ahotsak entzun ahal izan ziren Ama Brigitarren komentuan.

Ekintza ugari

Nagusien omenaldi asteko azken egunetan sartu arren, oraindik ekintza ugari izango dute.

Gaur 'Ondo ibili' paseo osasuntsua egingo dute. Arratsaldean berriz, dantza txapelketa izango da.

Bihar Ibilbide neurtua dago eta 19:00etan, Elvi bentrilokuaren emanaldia izango da.

Larunbatean berriz, Urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteak eta Biyak Bat elkartearen urteurrena izango dira protagonista. Meza, opari banaketa eta bazkari ederra daude antolatuta.



Biyak Bat elkarteko taldeek dantzan jarri zuten atzo Okendo plaza.

5 HISTORIA

Karolingiarren iraultzaren ondorioak Euskal Herrian

Urriaren 13an, 'Euskaldunak eta Karolingiar iraultza' hitzaldia dago aurreikusia Manuel Lekuona kultur etxean. Lasarte-Orian bizi den Iñaki Lopez de Luzuriaga izango da solaskidea. Lopez de Luzuriagak 'Euskaldunak eta Karolingiar iraultza' liburu aurkeztu zuen ekainean eta honetan oinarrituta eskainiko du hitzaldia. Euskal eta europar identitatearen sorreran izan zuen garrantzia ere aztertuko du.

www.multioplicasgipuzkoa.com

2 mō betaurreko graduatu erreflexuen aurkako leiarrekin
97€

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • EIBAR • ERRENERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kale Nagusia, 15
 Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
 lehena zerbitzu optikoetan

Neure kabuz



Mailu Arruti

Emakumeei erasoak festetan

Uda ondar honetan haize hegoak hostoak ihartu eta lehortzen hasi diren garaian, udari errepasotxo egite- ra nator.

Uda normal joan dela esan nahi nuke baina ezer berezirik izan bada emakumeen aurkako indarkeria ikusi dugula esango dut gure lurraldeko festetan.

Garai batean beste mota batetako indarkeriaz babesten ginen gazteak. Eta orain ikusi dut txoznetan puntu moreak jarri dituztela, etxera laguntze antolatua... benetan garai zaharrak dakarzik gogora. Tristeia. Benetan tristeia.

Udako festetako programetan banderen gerratik eratorritako ikurriñaren defentsa egiteko manifik, presoan dispertsioaren aurkako eta tokian tokiko errebindikazioen artean orain genero indarkeriaren aurkako antolamenduak ikusi ditugu.

2016ko uda emakumeen aurkako indarkeriaren uda bezala gogoratu izango da. Ez lehenago izan ez delako, beti izan baita. Baina bistaratu egin da nonbait.

Pintadak ere ikusi ditugu: "ETXERAKOAN EZ DUT AUSART IZAN NAHI, LIBRE BAIKIZIK"; "KALEA ETA GAUA GUREAK DIRA"

Gizonek bortxa ez dezaten irakatsi beharrean emakumeak bortxatuak izan ez daitezten irakasten duen gizarte batean bizi gara.

Denon gogoan Iruñan gertatua eta herriak emandako erantzuna.

Arazo hau denona da. Gizon, emakume, gazte, zahar, aberats, pobre, hango eta hemengo...

Denok beraz jarri behar dugu guretik konponbidea aurkitzeko. Gerta ez dadin neurriak jarri. Tamalez, gertatzen bada, salatu. Poliziari, epailei dei berezia: Sentsibilitate gorena asunto hauetan.

Matxismoak hil egiten du.

Lehen munduko, gizarte zibilizatu, demokratiko, teoriar behintzat gero eta gehiago, berdintasunean hezitako, gizarte honetan, zer gertatzen ari da?

Zergatik gara gizonentzat mehatua eta ez maila bereko gizakiak?

Zorion agurrak



Aiora

Zorionak prexiosa!!! Zure bederatzigarrena disfrutatuko. Muxu etxe-koen partetik.



Kenai

Zorionak!! Oso modu berezian ospatuko dugu zure 10. urtebetetzea. Askok maite zaitugu. Ama, Miguel eta Alex.



Eneko

Urteek ez zaitzatela zaharragoa bihurtu, jakintsuagoa baikiz.



Luana

Zorionak rusita! 4 muxu oso handi! Oso ondo pasa zure egunean! Maite zaitugu! Sayen, Nahuel, aita eta ama.



Ane

Zorionak printseza, txokolatezko 7 muxu familiararen partez.



Eneritz

ZORIONAK maitia!!! Eskerrik asko zure iribarrere eta alaitasunarengatik. Txokolatezko 8 muxu zuretzat.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Pisua alokairuan Oztaran plazan. 3 logela, sukalde eta komun berritua eta igogailua du. Leiho guztiak kanpora ematen dute. Gerturatu eta ikusi, aukera paregabea. Preziosa adostu daiteke. Harremanetarako, 625 709 361, Marian.
- Garaje marra bat alokatzen da, Caddie plazan, Atsobakar auzoan, zahar-etxearen parean. Zabala da eta sarbide eroso du. 659 021 945.
- Hernaniko Saretxo-Txiki golfa traspasatzen da. Aukera ona. 679 680 465.

Salerosketak

- Motorra salgai 49 zilindrada 6.400 km dauzka eta 15 urte. Daelin Message eta istripurik gabekoa. 450 euro negoziagarriak. Nerea, 637 760 816.
- Haur jaioberrientzat 'Baby home dream' hondar koloreko sehaska txikia (100 euro) eta 'CabrioFix' Maxi Cosia (100 euro) salgai ditugu. Egoera oso onean daude. Aitor, 648 102 799.

Lan-eskaintza

- Emakume euskalduna behar da Donostian etxeko lanak eta adineko pertsona zaintzeko. Astelehenetik ostiralera, goizez. 657 797 199.

Lan-eskaria

- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka

lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048 Doris

• Orduka etxeko lanak egiten lan egingo nuke. Gehienez 6 ordu egunean. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 610 378 313.

• Emakume bat eskaintzen da adineko pertsona zaintzeko, ospitaletan gau zein egunez aritzeko, orduka ere bai. Asistente soziosanitario titulua dauka. 667 09 06 92.

• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak edo haur, zein adinduen zaintza egiteko. Orduka, interna edo externa. Paperak ditu. 637 289 459.

• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egin, adineko pertsonak zaindu edota interna moduan lan egiteko. Piedad Gomez. 632 754 243/652 917 797.

Bestelakoak

- Laguntza klaseak ematen dira Lehen Hezikuntza eta DBH. Talde txikiak, esperientzia handia, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakiak, 943 376 888/646 645 445 (Maria).
- Ingleseko klaseak ematen dira, maila guztiak banaka zein taldeka. 693 601 222
- Batxilergoko 2. mailako ikasle bat klaseak emateko eskaintzen da, DBH zein Batxilergoko Igo mailakoei. 633 527 379.
- Euskara edo ingelesa irakasten dut. Ekonomikoa. 600 766 068.

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Yara Garcia Vega, irailaren 29an.



Heriotzak

- Ana Paula Ramirez Jandula, urriaren 3an, 89 urte zituela.
- Juan Mari Otaegi Etxeberria, irailaren 30an, 69 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Osteguna, 06 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Ostirala, 07 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 08 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 09 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 10 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 11 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Asteazkena, 12 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Osteguna, 13 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Urrutia, Etxeberri auzoa I
Hernani, Tel.: 943 557738

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal eskalategia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Eredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noniega

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maidar Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

SARE



Hainbat herritarrek egin dute bat Sarek urriaren 15erako egindako deialdiarekin.

Urriaren 15ean, Donostiara

Sarek manifestaziora deitu du, 17:00etan Bulebarrean

Euskal presoek eta euren senideen eskubideen alde lanean jarraitzen du Sarek. Tartean, presoek osasun arreta egoki bat jasotzearen alde. Agerraldia egin zuen Lasarte-Oriako Sarek asteartean, eta osasun langileek idatzitako manifestu bat plazaratu. Azarorako ekintzen eta Ibon Fernandez Iradiren egoeraren berri ere eman zuten.

TXINTXARRI

Iraila hastearekin bat, aktibazio ziklo berri batean ari da lanean Sare: 'Salatzen Dut' du izena. Laburki esanda, gizarte zibilari, alderdi politikoei eta euskal erakundeek inplikazio eta konpromiso handiagoa eskatzen zaie, euskal preso eta euren senideen eskubideak errespetaraztea helburutzat hartuz.

Eskubide horietako bat da presoek osasun arreta egoki eta duina jasotzea. Gai hori ardatz hartuz, Lasarte-Oriako Sarek agerraldia egin zuen astearte arratsaldean, osasun zentroaren aurrean. Hainbat kontu izan zituen hizpide. Batetik, deia egin zuen urriaren 15ean Donostian egingo den manifestazio nazionalen parte hartzea. Bulebarretik abiatuko da, 17:00etan. Bertan, eritasun larri eta sendaezinak dituzten hamar euskal preso etxeratzea eskatu dute, besteak beste. Sareko kideek jakinarazi zuten gaur arratsaldean deialdi-kartelak itsatsiko dituztela herrian: hitzordua Xirimirin jarri dute, 17:30ean. Ekimenaren berri ahoz aho, sare sozial zein whatsapp bidez emateko ere eskatu zuten.

Agerraldia osasun etxearen aurrean egitea ez zen kasualitatea izan: "Donostia-ko, Lasarte-Oriako eta kasuan kasuko" osasun langileek idatzitako manifestu bat ere plazaratu baitzuten.

Legedia eta errealtatea

"Osasungintzan gabiltzan langileok ohartarazi nahi dugu

arloan horretan euskal presoekin ematen diren urraketei buruz; bereziki, larriki gaixo daudenei buruz". Horrela hasten da manifestua. Adibide zehatzak testura ekarri aurretik, ordea, OME Osasunaren Munduko Erakundeak osasuna nola definitzen duen aipatzen da, eta espainiar legedia aztertu.

"Araudiak esaten du presoek bizitza, osasuna eta osotasuna zaindu behar dituztela presondegiek; dio preso guztiak, salbuespenik gabe, gainontzeko herritarrek bezala izango direla artatuak, eta, areago, larriki gaixo dauden presoek baldintzapeko askatasuna eman ahal zaiela, egokiro artatuak izan daitezkeen", nabarmentzen dute.

Errealtatean, ordea, legedian jasotako zehaztapenak ez dira betetzen, osasun langileek manifestuan jasotzen dutenez: "Eritasun larri eta sendaezinak dituzten hamar euskal preso daude Espainia eta Frantziako espetxeetan: esklerosi anizkoitza, nahasketa psikotikoak, kardiopatia iskemikoak, eta abar. Kartzelek oso espazio murrizak dituzte osasun artak emateko, eta, gainera, segurtasun arrazoiek erabateko lehenetsia dute tratamenduen gainera: espetxeek medikuaren kontsultan kartzelaria egotea dago aginduta, sendagile eta artatuaren arteko konfidentzialtasun printzipio deontologikoa urratuz".

Hainbat eskaera ere egin dituzte: "Osasun langile garen aldetik, askotan ikusi dugu presoek artarako ospitaletako protokoloa ez betetzea. Aipatu

errealtateek kezkatzen gaituzte; eskatzen dugu presoek pairatzen dituzten salbuespen egoerekin bukatu eta legediak dioena betetzea. Era berean, deia luzatzen dugu urriaren 15eko manifestaziora joateko".

Ibon Fernandez Iradi

Larriki gaixo dauden hamar euskal presoetako bat da Ibon Fernandez Iradi herritarra. Esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten orain dela zenbait urte, eta gaur egunera arte hiru epaiketa egin dira haren kasua aztertu eta kalean beharko lukeen ala ez erabakitzeko. Lehenengo bietan, Sareko kideek zehaztu zuten, "medikuntzan adituak" ziren tribunalek ebatzi zuten Ibonek espetxetik at behar zuela, kartzelean ez zeudelako baldintza nahikoak eritasun hori behar bezala tratatzeko.

Espainiar estatuak errekurtsioak jarri zituzten ebazpenei, eta hirugarren epaiketa egin zuten. Orduko horretan, beste tribunal batek ebatzi zuen herritarrek ez zuela zertan kartzelatik irten, bertan tratamendu egoki bat egin zitekeelako. Errekurtsioa jarri zitzaion epai horri, eta Frantziako Auzitegi Gorenak onartu egin zuen.

Hortaz, laugarren epaiketa bat ere egingo dute, azaroaren 24an, tribunal berri batekin. Bertan ebatziko da Ibon kalera aterako den edo espetxean jarraitu beharko duen.

"Urriaren 15eko manifestazioa eta gero, Ibonen egoera lehen mailan jarriko dugu", adierazi zuten herriko Sareko kideek. Mahai-inguru bat egin nahi dute azaro hasieran, Ibonen abokatu eta zenbait osasun aditurekin. Eta, azaroaren 11n, eskualde mailako ekimena.

Azaroaren 19ko manifestazio nazionalera joateko deia ere egin zuten; Baionan egingo da. Lasarte-Oriatik joateko autobusak jarriko dira.

UDAKO TXOKOAK

Argazkiak jasotzeko epea

Udako Txokoetan eta Larraulgo irteeran milaka abentura bizi dituzte etxeko txiki eta gazteek, hauek gogora ekartzeko uztaila eta abuztuko argazkiak eskuratu daitezkeela jakitera eman du Ttakun Kultur elkarteak Aisia sailak.

Hurrengo astean urriaren 10 eta 11ean, astelehen eta asteartean, gurasoek haurren izena duen USB memoria bat gerturatu behar dute Ttakun KE-ren bulegora, Geltoki kalea 4. Hauek jasotzeko epea urriaren 13 eta 14an, ostegun eta ostirala izango da.

Bulego ordutegia honakoa da: astelehena 16:00etatik 19:00etara; astearte eta osteguna, 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eta ostiralean, 9:00etatik 13:00etara.



NAFARROA OINEZ

Viana-Lodosara autobusa antolatu da

Ttakun kultur elkarteak Hernaniko Dobera elkartearekin batera, urriaren 16an Viana-Lodosan antolatu den Nafarroa Oinez jaialdira autobusa antolatu du.

Autobusa goizeko 9:00etan Tajamar biribilgunetik aterako da. Vianatik 19:00etan egingo du buelta.

Txartelak 10 euroko balioa du Ttakuneko bazkideentzat eta bazkide ez direnek, 12 euro ordaindu behar dituzte. Tikitak eskuragarri daude Ttakun Kultur elkartearen bulegoan.

Antolatzaileek autobusa ateratzeko gutxieneko kopuru bat egongo dela jakin arazi dute.

GAZTELEKUA

Entsegu gelen eskaera

Lasarte-Oriako Udalak herriko musika taldeei ohartarazten die, Gaztelekuko entsegu gelak ikasturtean zehar erabili nahi dituzten taldeek gaur dutela eskaera egiteko azken eguna.

Gazteria saileko kideek jakitera eman dutenez, inprimakiak Gaztelekuan jaso behar dituzte interesatuek. Eskaerak berriz, Lasarte-Oriako Udaleko erregistro orokorrean entregatu behar dira.

ANDRE-JOAKINA HAURRESKOLA

Leihoak berrituko dira

Lasarte-Oriako Udalak jakitera eman duenez, Andre-Joakina Enea haurreskolako leihoak eta pertsiana amerikarrak aldatuko dira. Lana Ibarra Apatia Aroztegia, S.L. enpresari esleitu zaio eta 48.754,65 euroko kostua izango du.

Udalak azpimarratu duenez, "leihoak eta pertsianak zurezkoak dira, eraikin babestua dela eta".

LANBIDE

'Zure enpresa nola sortu eta kudeatu' ikastaroa

LANBIDEK Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin, azaroaren 15ean eta 16an 'Zure enpresa nola sortu eta kudeatu' ikastaroa antolatu du.

Saioak Hernaniko Gabriel Zelaia eraikinean egingo dira eta bi txanda ezberdin eskainiko dira, bata goizez, 9:00etatik 13:00etara eta bestea arratsaldean, 15:00etatik 19:00etara.

Ikastaroa doanik da. Informazio eskuratu edo izena emateko hiru era daude: 943 30 42 21 telefono zenbakira deitu, ekinean@andoain.org helbide elektronikoko mezuzidali edo LANBIDEko bulego batera hurbiltzea.

IKASTAROA

Xake ikastaroa Manuel Lekuonan

Lasarte-Oriako guraso batzuen ekimenez, Manuel Lekuona kultur etxean xake ikastaroa eskainiko da urritik ekainera.

Ikastaroa asteartean izango da 17:15etik 18:15era eta 7 eta 8 urteko haurrei zuzendua dago.

Saioak asteartean hasi baziren ere, izen-emateko aukera dago oraindik. Interesa duenak, 661 800 947 telefono zenbakira deitu behar du.

Euskaraz ederki gozatz

Kuadrillategi egitasmoan izena emateko azken eguna da gaurkoa

Lasarte-Oriako LH3 eta DBH4 maila bitarteko gaztetxoek ikasturte honetan ere ostiralero euskaraz lagunekin jarduteko aukera izango dute. Urriaren 14etik aurrera, Gaztekluba eta Kuadrillategi egitasmoen lehen saioa izango da. Baina ostiralero biltzeaz gain, ekintza bereziak ere izango dituzte ikasturtean zehar.

TXINTXARRI

Gaur egun Lasarte-Oriako gaztetxoek lagun artean gaztelarera jotzeko ohitura dute. Joera hori aldatzeko Ttakun Kultur elkarteak Gaztekluba eta Kuadrillategi egitasmoak ditu martxan ikasturtean zehar. Hauei esker, urtero gazteek milaka ekintzez eta euskaraz gozatzeko aukera dute.

Gaztekluba

LH3 eta 6 mailan dauden gaztetxoek Gaztekluba programa dute eskura.

Tailerrak, jokoak, lehiaketak... ostiralero ekintza ezberdin bat eramango dute aurrera.

Bi taldeetan lanean

Gazteklubeko arduradunek azaldu dutenez, bi talde bereiziko dituzte. 2008 eta 2007 urteetan jaiotako haurrak talde bat osatuko dute eta 2005 urtean jaiotakoak bestea.

Arduradunek oraindik ez dituzte taldeak bilduko diren lekuak zehaztu, baina hurrengo astean zehar helaraziko

diete izena ematen duten gaztetxoei. Orduari dagokionez, saioak 17:30ean hasiko dira.

Gazteburuak

Honetaz gain, hamabost egunero Gazteburuetan ere parte hartu ahalko dute.

Larunbat arratsaldeetan edo egun osoz ekintza bereziak antolatuko dira, hala nola, irteerak, film ikustaldiak... Gazteek ez dute asperetzeko astirik izango.

Izen-ematea

Lehen hitzordua urriaren 14an, arratsaldeko 17:30ean izango da. Saio guztiak ordu horretan hasiko dira.

Parte hartu nahi duten gaztetxoek hurrengo astean zehar Ttakuneko bulegoan edo Gazteklubeko lehen egunean bertan egin dezakete izen-ematea.

Kuadrillategi

Helduagoek ere lagunekin euskaraz harremanak sendotu eta ongi pasatzeko tarteak izango dute, Kuadrillategi egitasmoari esker.

DBH1-4 mailako gazteek ere ostiralero hamaika ekin-



140 gaztetxo izan ziren Kuadrillategi egitasmoaren ekintzetan parte hartu zutenak.

tzatan parte hartu ahalko dute.

Urtean zehar gainera herriko jaiekin lotutako ekintza bereziak ere landuko dituzte. Irteerak ere ez dira faltako, hala nola, eski irteera edo Arcachoneko ur parkera irteera.

Eta beste herrietako Kuadrillategi taldeekin batera KTG eguna eta KTG asteburua ere ospatuko dituzte.

Lehen saioa

Arduradunek azaldu dutenez, Kuadrillategiko lehen egunean, urriaren 14an, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara talde guztietako gazteek elkarrekin ekintza bat burutuko dute. Lekua zehazteke dago.

Egun honetan izan ezik,



Flash-moba, irteerak, lehiaketak... Gazteklubean erritmo ederra dute.

beste saio guztietan bakoitzak bere espazioa izango du. "Taldeetako kideen kopuruen arabera zehaztuko da non izango diren saioak".

Izena emateko epea gaur amaitzen da. Izen-emate orria

Ttakuneko bulegoan bete edo bertara eraman behar da.

Kuadrillategi eta Gaztekluba egitasmoetako arduradunek herriko gaztetxoei gonbita egiten diete lehen egunean hurbildu eta proba egitera.

Errigoraren kanpaina berria urriaren 24tik aurrera

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka' kanpaina abiatuko du Errigora ekimenak.

Aurten ere, Nafarroako hegoaldeko euskalgintzari bultzadaxoa bat emateko aukera dute euskalzaleek. Izan ere, kanpaina jasotzen den %25 haien eskura jarriko baita. Errigorako kideek adiztera ematen dutenez, "euskara ikasteko egitasmoen etorkizuna bermatzen jarraitzeko eta, gainera, zonaldean euskara plazara jalgitzeko ametsa egia bihurtzen haste" erabiliko da.

Bi aukera

Errigora ekimeneko kideek azken urteetan legez, kanpaina honetan Nafarroa hegoaldeko bertako produktuak eskaintzen dizkiete Euskal Herriko herritarrei.



Aurten Errigorak Nafarroa hegoaldeko ekoizleen bi saski eskaintzen ditu

Baina oraingo honetan berrikuntza bat dakarte. Orain arte, saski bakarra zegoen eskura, aurten bi saskiren artean aukeratu edo bietaz gozatu ahalko da: saski zuria edo saski beltza.

Saski zurian txokolatzeko gutuziak, pasta ekologikoak, arroza, polboroiak edo teilak, madaria almibarrean, eskalibada, pikillo-saltsa, zainzuri estra lodiak, orburu-bihotzak, pikillo-piper osoak, ozpin

ekologikoa, melokotoia almibarrean eta ardo ekologikoa daude.

Saski beltzean, berriz, oliba-olio birjina, mahats-zukua, potxak, melokotoi-marmelada, arbendolak, borra eko-

logikoa, pikillo-piper mamia, zainzuri estra lodiak, orburu-bihotzak, pikillo-piper osoak, ozpin ekologikoa, melokotoia almibarrean eta ardo ekologikoa daude.

Saski bakoitzak 50 euroko prezioa izango du.

Eskaera

'Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka' kanpaina urriaren 24an hasiko da eta azaroaren 8a arte egin ahalko dira eskaerak.

Eskaerak errigora.eus orrialdean edo gure herriko hainbat puntuatan egin ahalko dute interesatuek, hala nola, Ttakun elkartearen esku-ragarri daude eskaera orriak.

Errigorako lagunek kanpaina eta eskaera orriak jasotzeko puntuaren informazio gehiago eskainiko dute hurrengo asteetan.

Euskaldunak eta Karolingiarak

Iñaki Lopez de Luzuriagak hitzaldia eskainiko du Manuel Lekuonan urriaren 13an

Iñaki Lopez de Luzuriagak 'Euskaldunak eta Karolingiar iraultza' liburua idatzi du. Herrian bizi den itzultzaile honek euskal eta europar identitatearen sorreraren inguruan azterketa egin du goi Erdi Aroan, XVIII. mendeko historiografia ikertuz. Liburuan jaso eta ondorioztatutakoak hitz egingo du datorren ostegunean Manuel Lekuonan. Hitzaldia 19:30ean hasiko da eta herritarrek horretara gonbidatzen ditu.

TXINTXARRI

Euskaldunak eta Karolingiar iraultza' hitzaldia eskainiko du Iñaki Lopez de Luzuriagak datorren ostegunean, urriak 13, Manuel Lekuonan 19:30ean. Izen bera daraman liburuan jasotakoak mintzatuko da idazlea.

Hiru urtez gaia aztertu ondoren idatzi du Iñaki Lopez de Luzuriagak 'Euskaldunak eta Karolingiar iraultza' lana. Ekainean aurkeztu zuen Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzaz argitaratutako liburua. Berak azaldu moduan, atzerrian bizitzen ari zela, Wikipedian sortutako eztabaida baten harira goi Erdi Aroko dokumentu batzuk topatu zituen ingelesez eta blog batean hasi zen gaiari buruz idazten, *basquemedia-val.blogspot.com* izenekoan. Iruditu zitzaion esparru horretan hutsune bat zegoela eta historiografia aztertzen jarri zen.

Iñakik berez hizkuntzaren arloan egin du beti lan baina azkenaldian historiara gerturatu da gehiago, eta, bereziki, historiaren kontaketa ikertzeari.

Euskal eta europar identitatea sortu ziren garaia du aztergai liburuak. Horrela izanda, europar identitatearekin lotura zuzena izango lukete karolingiarrek VIII. mendean. Eurek salbatu zuten

Erromako apezpikua eta aldi berean, Erromako elizak inperioaren ordezkari bihurtu zituen karolingiarak. Karlo-magno eta bere leinua izan ziren Europa mendebaldearen zati handi bat saretu zutenak, egitura bat sortuz.

Frankoen hedapena

Mendebaldeko Erromatar Inperioa desagertzearekin batera, Frankoen Erresuma eratu zen egungo Paris aldean: garaipen militarra eskuratu bai, baina barbaro izaten jarraitu zuten, ez ziren erromatarak, eta gobernatzeko zilegitasun osoa eskuratu omen zuten. Hala ere, kristau bihurtuta erromatar estatusa lortu zuten pixka bat. Karolingiar dinastiak, berriz, botere militarraz gain, erromatarrena landu zuen, Erromako mitologiarekin bat zetozen narrazioak sortu, eta Eliza hartu zuten horretarako bide-lagun. Franko karolingiarren errege nabarmenena Karlo-magno izan zen. Boterea 768an hartuta, konkista-kampainari ekin zion. Gehienentzat ezaguna den Orreagako guduan 778. urtean frankoak galtzaile atera ziren arren, lurralde itzela geratu zen bere esku.

Lurralde zabal horretan justizia sistema berria, eliza erreforma eta kultura latinoak bultzatu zituzten. Ordu arte indarrean zegoen Baskonia-A-



Ekainean aurkeztu zuen Iñaki Lopez de Luzuriagak 'Euskaldunak eta Karolingiar iraultza'.

kitaniaren dinamika aldatu egin zuen.

Egungo botere egituren sorrera garai horietan kokatzen du Lopez de Luzuriagak: "Benedikto Anianoak monasterio-sare oso indartsu bat sortu zuen Europaren zati handi batean. Karolingiarren kanpaina militarretan monasterioak sortzen zituzten eta haei lotuta gobernatzeko modu bat eratu zen. Benedikto Anianoaren ordenak narrazio berria lantzen erabakigarria izan zen, karolingiar dinastiaren aintzarako".

Euskal Herria landu da Pirinio eta Garonako herri horien ondorengo bezala. Idazlearentzat garai hartan euskal kontzientzia bat sortu zen, "identitate bat akitaniar independentzia politikoari lotuta". Euskaldunak erromatar tradizioan sentitzen ziren Karlomagno iritsi arte. Orduan borroka gogorak gertatu ziren Ebro inguruan eta karolingiarrek tropak behar zituzten, eta hainbat herrik

ezekoa eman zioten. Eneoren altxamendua gertatu zen 814. urtean tropak bidaltzeari uko egiteagatik edota lurren gaineko jurisdikzioengatik. Arabiar iritsi berriekiko borrokan testuinguru horretan sortu zen europar identitatea eta 754. urtean aipatzen dira lehenengoz 'europarrak'.

Euskal identitatea

Ordura arte baskoi tribuen artean loturak estutu eta gizarte egitura horizontal bat zuten, ez zegoen ordea narrazio bakar bat baskoi guztientzat. Karlos Martel eta karolingiar leinua iritsi zenean gauza asko aldatu zen. Hauek egitura bertikal batzuk ezarri zituzten baskoi herrietzat arrotzak zirenak. Bi botere sortu ziren nolabait, arrotzak eta ohiturazkoa, herriko legeak, ordura arte izandakoak.

Euskal Herriaren identitatean aldaketa gertatu zen orduan. "Galdu egin zen batasuna eta zatikatu ziren

konderriak eta halakoak sortuz. Ordura arte herri gisa zuten izena, Baskoien dukerria, kategoria etnikoa zena, aldatu egin zen. Horren ondorioak oraingo egoeran islatzen dela uste du idazleak: "Labur esanda, elizak sartu zituen Baskonian atzerriko egiturak".

Ez du erlijioen arteko borrokaz hitz egiten, bi botereren arteko borrokaz haratago joan nahi izan du Lopez de Luzuriagak. Historiografiari buruzko narrazio bat da, gertaera eta narrazioaren arteko bereizketa egiten saiatu da: "Kontuan izan behar da historia garailek idazten dutela".


Hitzaldian idazleak historiako pasarte hauen inguruan azalpenak emango ditu eta bertaratutakoek aukera izango dute galderak egin edota zalantzak plazaratzeko. Solasaldiari tartea zabalduz. Liburuan interesa dutenek Elkar liburu dendetan edota UEUren webgunean eskura dezakete.

Euskaldunak eta karolingiar iraultza; Akitania eta Baskonian barrena

Autorea: Iñaki Lopez de Luzuriaga

Orrialdeak: 206

Frankoak bizi izan ote ziren inoiz Akitanian? Zertaz hitz egiten zuten Elizaren kontzilioetan? Zergatik sortu ziren monasterioak? 732an, Toursen Karlos Martelek Europa salbatu ote zuen? Nola heldu zaigu informazio hori? Liburu hau ikerlan dibulgatzaile oparoa da, europar eta euskal identitatearen garai kritiko baten kronika mamitsu eta zorrotza.



ARGENTINA

IPARRETIK HEGORA. AURREIKUSITAKO IRTEERA 2017/01/30

BIDAIA TALDEAN
Irteera Lasarte-Oriatik

Erreserbak eta informazioa bulegoan

NOAOA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

Berria!

Eka Studio
Yoga & Ongizatea

Zentru berria Lasarte-Orian

672 44 86 44
ekalasarate@gmail.com
Green Plaza, 1, 2. baxua

LABURRAK.-

Eskola Kirola egitasmoa hasi da dagoeneko, 412 erabiltzaile eta 12 kirolekin

Herriko gaztetxoek gorputza mugimenduan jarriko dute beste urte batez, Ttakun KEk koordinatutako eta herriko hainbat kirol elkarterekin landutako Eskola Kirola egitasmoari esker.

Denera, 412 erabiltzailek egin dute Eskola Kirolan parte hartzeko hautua: 111 aurrebenjaminak dira, 112 benjaminak, 128 alebinak eta 61 infantil eta kadeteak. Landaberri zein Sasoeta-Zumaburu ikastetxetako ikasleak dira.

Kirol eskaintza honakoa da: kirol hastapena, multikirola, futbola, saskibaloia, judoa, atletismoa, tenisa, gimnasia erritmikoa, igeriketa, esku pilota, natur ekintzak eta erritmo kirolak. Eskubaloia ere egin nahi izan dute, baina ez dute lortu azkenean.



Raul Gomez Margallo bigarren '5 milia buru osasunaren alde' lasterketan

Sasoi betean jarraitzen du Raul Gomez Margallo herriko lasterkariak. Iragan igandean bigarren helmugaratu zen '5 milia buru osasunaren alde' lasterketan, Donostian. Ibilbideko zortzi kilometroak 25:46ko denboran osatu zituen. Unai Señorán Bengoa irurarra eta Lourdes Colomo Artola zizurkildarra izan ziren irabazleak; 25:37 eta 30:52ko denborak egin zituzten.

Azken hondarrean berriro ere (17-18)

Inork ezin du esan Babyauto Zarautzen partidak emozionanteak ez direnik. Oviedoren aurka egin bezala, Vigo azken minutuan hartu zuen mendean Phil Huxford eta Facundo Oriveren taldeak, Corey Simpson jokalariairen transformazio bati esker. Arauzko 80 minutuak jokatu ostean, 17-18koa izan zen markagailua, eta Zarautzera joan ziren puntuak. Lau herritar aritu ziren: Ander eta Xabier Rekondo anaiak, David Vega –hasieratik hiru horiek– eta Julen Aristorena –bigarren zatian zelairatu zen–.



Ziurra zirudienean, garaipenak ihes egin zion 3. Mailako Ostadar Antonio Aroztegiari (4-5)

Ostadar Antonio Aroztegiak inoiz baino gertuago eduki zituen denboraldiko lehenengo hiru puntuak, baina garaipenak ziurra zirudienean, ihes egin zion. Lagun Onak FSrekin neurtu zituzten indarrak Josean Jimenezen mutilek, 3. nazional mailako 3. jardunaldian. Lehenengo zati bikaina egin ostean, 2-0 aurreratu zen Ostadar, Ander Petxarromanek sartutako golei esker. Bigarren zatia bukatzeko bost minuturen faltan 4-2koa zen markagailua, baina Lagun Onakek atezain-jokalaria atera eta hiru gol sartu zituen; azkenean, 4-5.

Jardunaldiko gainontzeko emaitzak (Gipuzkoako 1go maila): ISU Leihoak 4-4 Tellatuberri Zaldibi; Bilkoin Legorreta 3-5 Cecilia Kebab Lasarte Ostadar.

ATLETISMOA.-

Berriro ere martxan

LOKEren atletismo alorra denboraldia prestatzen hasia da

Michelingo atletismo pista mugimenduak ez du etenik: LOKEko eskolar-teko eta atleta federatuak 16/17 denboraldia buru-belarri ari dira prestatzen, Amaia Andres eta Oscar Goikoetxearen gidaritzapean. Pista estaliko txapelketak ari dira prestatzen orain.



Gero eta handiago da LOKEren atletismo alorreko talde argazkia.

IÑIGO GONZALEZ

Gero eta handiago da LOKEren atletismo alorreko talde argazkia, kirol diziplina hori gure herrian hazten ari den seinale. Atzo arratsaldean eskolar-teko gaztetxoak eta atleta federatuak bat egin zuten Michelingo atletismo modulu. Koltxonetetako baten inguruan denak antolatu, eta irribarretsu begiratu zioten kamerari, entrenatzen jarraitu aurretik.

Amaia Andres eta Oscar Goikoetxearen aholku eta jarraibideak adi-adi entzuten zituzten denek. Tartetxo bat lapurtu, eta TXINTXARRIren galderak erantzun zituzten.

Klubaren helburuei buruz galdetuta, kirol emaitzen gainetik atletismoa sustatzea aipatzen du Andresek: "Gero eta gazte gehiago animatzen dira gurekin aritzera; egia da gero kosta egiten dela federatu mailara jauzi egitea, baina aurten bost kadetek proba egingo dute, ea azkenean animatzen diren".

Kirolaren alorrari behatuta, atleta federatuak "aurreko urteetako" maila mantentzea espero du prestatzaileak, eta Espainia mailako txapelketarako sailkatzea. "Batzuk kanpora joanak dira ikastera, baina entrenatzen jarraitzen dute, eta LOKE klubean ere bai", gehitzen du.

Eskolarteko gaztetxoak urriaren 20an hasiko dira pista estalian konpetitzen. Atleta federatuak, berriz, azaroa hasiarekin batera lehiatuko dira.

Etorkizuna, bermatuta

"Benjamin, alebin eta infantil mailatan gero eta gazte gehiago dauzkagu; orain arte gehienak neskak ziren, baina mutil ugari ere baditugu aurten", zehazten du Andresek. "Futbolearen izena emanda dauden batzuk ere etortzen dira fisikoa lantzerako; ea etorkizunean gurekin jarraitzea lortzen dugun". Enfasia, dena den, beste kontu baten gainean jartzen du prestatzaileak: "Herriatik at ikasten duen jende gero eta gehiago ari da etortzen gurekin entrenatzera, eta hori oso pozgarria da".

GAF Gipuzkoako Atletismo Federazioko presidentetza hartu berria du Amaia Andresek, baina kargu hori dela eta ez du LOKE "inola ere" utziko: "Hau da nire kirol-etxea, talde honek bizia ematen dit: duela hamasei urte, Eneko Castro zendu zenean, alorren ardura hartzea eskaini zidaten, eta horrek ahalbidetu zuen nik profesionalki kirolari lotuta jarraitzea; oso argi daukat hau dela nire etxea".



Eskolartekoak urriaren 20an hasiko dira konpetitzen, pista estalian.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Ostirala 7

Michelin, 10:30ean

Ostadar SKT - Aretxabaleta KE
Erregionalen Ohorezko maila,
5. jardunaldia.

Berio, Donostia, 13:00etan

Antiguoko KE - Ostadar SKT
Kadeteen Ohorezko maila,
4. jardunaldia.

Larunbata 8

Michelin, 12:00etan

Ostadar SKT - Segura Goierri FT
Erregionalen 1go maila, 4. jardunaldia.

Harane, Usurbil, 16:00etan

Usurbil FT - Texas Lasartearra
Erregionalen 1go maila, 4. jardunaldia.

Plazeta, Lezo, 17:30ean

Allerru KJKE - Ostadar SKT
Emakumezkoen Lurraldekoa,
3. jardunaldia.

SASKIBALOIA

Larunbata 8

Kiroldegia, 10:30ean

Ostadar SKT - Easo 99
Errendimenduko juniorrak, A1 liga,
4. jardunaldia.

Bidebieta, Donostia, 18:00etan

Easo 01 - Ostadar SKT
Errendimenduko kadeteak, A1 liga,
4. jardunaldia.

PILOTA

Osteguna 6

Intxaur pilotalekua, Zizurkil, 21:00etan
Ziotza - Intza KE
Seniorren 3. maila, 4. jardunaldia.

Ostirala 7

Behar Zana frontoia, Billabona, 10:30ean
Behar Zana - Intza KE
Seniorren 1go maila, 4. jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 8

NUP, Iruñea, 10:30ean

La Unica RT - Gure Etxea Beltzak
18 urtez azpiko liga,
1go jardunaldia.

NUP, Iruñea, 12:00etan

La Unica RT - Gure Etxea Beltzak
16 urtez azpiko liga,
1go jardunaldia.

Asti, Zarautz, 16:00etan

Babyauto Zarautz - El Salvador
Seniorren Ohorezko B maila,
4. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 7

Eskolapioak, Tolosa, 17:00etan

Hirukide Eskolapioak - ISU Leihoak
Gipuzkoako 1go maila, 3. jardunaldia.

Larunbata 8

Kiroldegia, 16:00etan

Cecilia Ostadar - Inter Eder
Gipuzkoako 1go maila, 3. jardunaldia.



Agenda

Igandea, 17:00etan, Manuel Lekuona



Zipi eta Zaperen abentura berria

Haurren zinea atalean, 'Zipi eta Zape eta Kapitainaren irla' filma izango da ikusgai. Iritsi dira eguberriak eta Zipik eta Zapek bazterrak nahastu dituzte berriro. Oraingo honetan bihurkeria hain da handia, oporrik gabe zigortu dituztela eta gurasoekin itsasontzian aspergarria dirudien bidaia bat egitera derrigortu. Euren ezusterako, irla ikusgarri eta urrun batera doaz. Ekaitz gogorren ondorioz, behartuak daude Pamandereño bitxiaren luxuzko etxean babestera. Sarrera, 3,80 euro. Euskaraz.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTU ETXEA

Igandea, 19:30ean

Helduek 'Cafe Society' filma ikusteko aukera izango dute. Sarrera, 5,50 euro.

Ostirala 14, 22:00etan

Okendo zinema taldearen eskutik, 'Gernika' filma aztertuko dute zine forum sailean. Sarrera, 5,50 euro.



Nagusien Omenezko astea

BIYAK BAT EGOITZA

Gaur, osteguna, 18:00etan

Dantza txapelketa egingo da. Izena ematea 17:00etan irekiko da.

Larunbata, 13:00etan

Urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteek oroigarriak jasoko dituzte.

Larunbata, 14:30ean

Biyak Bat elkarteko urteurrena eta bikoteen urrezko ezteiak ospatzeko bazkaria izango da. Ostean, dantzaldia.

OKENDO PLAZA

Ostirala, 9:30ean

Ibilbide neurtua egingo da herrian zehar.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 19:00etan

Elvi bentrikoluaren emanaldiaz gozatuko dute.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Larunbata, 11:00etan

Meza izango da Biyak Bat elkarteko abesbatzak girotua. Aurretik Urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteak kalejiran joango dira elkartetik komentura.

Euritan ere jolasean!

LANDABERRI-GARAIOETXEA

Gaur, osteguna, 18:00etan

Azken saioan, lehenetsunak kontuan izanik, zein parke estali erabakiko dute herritarrek.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTU ETXEA

Osteguna 13, 19:30ean

Iñaki Lopez de Luzuriaga herritarrek 'Euskaldunak eta karolingiar iraultza. Akitania eta Baskonian barrena' hitzaldia eskainiko du.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTU ETXEA

Larunbata 15, 17:00etan

Magia, musika zuzenean eta ezusteko ugari izango dira 'Magia lapurra' antzerkian. 5 urte baino gehiagoko haurrei zuzendua. Sarrera, 3,80 euro.

Usurbil

Jaiak

AGINAGA

Larunbatera arte

Ekintza ugari antolatuta dituzte San Praxiku jaiak ospatzeko. Gaur, Gazte eguna; ostiralean, haurren eguna eta larunbatean, gaupasa eguna izango da: 00:30ean, Gozategi eta Laiotz frontoian; 04:00etan, Aros DJ Eliza Zaharrea.

Erakusketa

SUTEGI ERAKUSKETARETOA

Urriaren 8tik 15era.

'Errefuxiatuak, ongi etorri!' erakusketa ikusgai izango da. Erakusketa honek jaso nahi ditu errefuxiatuen errealitateaz dagoen ezagutza eta kontzientzia-maila, eta harreraren aldeko gipuzkoar herritarren jarrera handitu, gazteen artean batik bat eta arreta berezia eskainiz adingabe eta emakume errefuxiatuen egoerari.

Herritarren txokoa

Neguko ordutegia kiroldegian

Neguko ordutegia dago indarrean herriko kirol instalazioetan.

Kiroldegiko guneak astelehenerdik ostiralera 7:00etatik 22:30era erabili ahal dira. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara dago irekia eta igandetan berriz, goizean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo Kirol guneari dagokionez, astelehenerdik ostiralera arratsalde egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, berriz, egun osoz erabili ahal dira gune ezberdinak, 9:00etatik 20:00etara, eta igandetan goizez bakarrik 9:00etatik 13:00etara.

Alboka Abesbatza

Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak herritarrek taldearen parte izatera gonbidatu nahi ditu. Horregatik entsegu batera hurbiltzeko animatzen ditu.

Entseguak Arantzazuko Ama elizaren azpiko lokalean dira astelehen eta ostegunetan 20:00etan. Abesbatzako

kide izan nahi duten 15 eta 55 urte arteko herritarrek entsegetara gerturatu eta proba egin ahal dute "izan ere ez da zertan solfeorik jakin behar kantuan gurekin aritzeko".

Informazio gehiagorako 657 651 269 telefonora edota junta@albokaa-besbatza.com helbidera idatz daiteke.

Eskutitza

Lasarte-Oria da 5. edukiontzirik ere ez duen Gipuzkoako herri bakarra

Lortu egin du Jesus Zaballos alkateak: gaur egun, seguru asko Lasarte-Oria da herritarrei etxeko zaborretako zati organikoa berezita biltzeko aukera eskaintzen ez dien Gipuzkoako herri bakarra. Izan ere, Lasarte-Oria 5. edukiontzi ziztrin bat bera ere ez dago, 5. edukiontzia ezarriko zela behin baino gehiagotan agindu duten arren.

Orain arte, Lasarte-Oria Andoainekin lehia bizian ibili da, alor honetan azken putz bietatik zein izango ote. Baina Andoainen ere etxeko-lanak noizbait egin dituzte eta 5. edukiontzia kalez kale ezartzen hasi dira. Beraz, Lasarte-Oria txapeldun.

Astin dezagun memoria pixka batean...

Aurreko legegintzaldian, Udalak 5. edukiontzia Ezartzeko Batzorde Berezia eratu zuen, PSEren eta EAJren ekimenez, biziklatze-bidean pauso eragingarriagorik tratatzeko helburu. 2014ko apirilean, Batzordeko lehenda-

kari Jesus Zaballosek 5. edukiontzia urte hartan bertan ezarriko zela iragarri zuen, harrabots handiarekin iragarri ere. Alabaina, agindutakoa ez zen bete, 2015ean bete ez zen bezala, eta 2016rako pendiente geratu zen. 2016ko azken txanpan sartu gara, eta, Udaletetik datozen zurrumurruek arabera, beharbada urrian bertan hasiko dira 5. edukiontziak ezartzen. Ea oraingoan egia den, eta ea erabilera-baldintzek birziklatzea behar bezala sustatzen duten.

Baina, bitartean, bakoitzari berea: alkateak Lasarte-Oria alor honetan azken putz izatea lortu egin duela onartu beharra dago.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintzarri@txintzarri.eus

Eguzki

Liher Unanue eta Iker Ortega Sortuko kideak

“Proiektu sinesgarri eta herritar bat nahi dugu”

Lehenengo bilera irekia Xirimiri elkartearen egingo da, urriaren 19an, 19:00etan

Herrian hiru batzar egingo dira, urriaren 19an lehenengoa eta azaroaren 16an eta urtarrilaren 18an besteak. Hala ere, horietan parte hartzeko aurrez izena eman behar da eta urriaren 19tik azaroaren 23ra bitartean, asteazkenero, arratsaldeko 19:00etatik 20:00ak arte, Xirimiri Elkartearen aukera izango da tramite hori egiteko.

Maidar AZURMENDI

Liher Unanue eta Iker Ortega herritarrek Sortu alderdiaren birfundazio prozesua gidatuko dute herrian, beste kide batzuekin batera. Ezker abertzaleak datozen hilabeteetan bere militanteekin dituen helburuak lortu ahal izateko tresna eta estrategia eraginkorrak adostu nahi ditu.

2012ko ekainean jaio zen Sortu. Alderdi ‘gaztea’ dela esan daiteke. Lau-bost urteren buruan, zergatik behar da birfundatu?

Egia da alderdi nahiko berria dela baina sustrai zaharrak dituen zuhaitza da Sortu. Hau ez da ezer ezetik eta espontaneoki sorturiko zerbait. Illegalizazio urte luzeen ondoren ezker abertzaleak alderdi politiko berria eratu zuen duela ia lau urte. Momentu jakin hartan eta behar zehatz batzuei erantzunez egituratu ginen eta hainbat lehentasun ezarri ere bai.

Gaur egun erronka berriak ikusten ditugu eta antolaketa mailan aldaketak ere ezinbestekoak direla iruditzen zaigu. Honen guztiaren ondorioz Sortu birpentsatu, birrasmatu eta etorkizunerako proiektu sendo batean bihurtzeko unea dela iritzita alderdia birfundatzea erabaki dugu.

Nondik dator hausnarketa

prozesua egiteko beharra?

Aurreko ikasturtean Abian hausnarketa prozesua egin genuen. Bertan, Sortu eratu zenetik gaurdaino eginiko bidearen azterketa eta balorazioa egin genuen eta laburtuz hiru ondoriotara iritsi ginen.

Lehen ondorioa, beste mundu bat posible dela eta Euskal Herrian mundu hori eraiki behar dugula da. Inposaketa, uniformizazio, kapitala zein patriarkatua baztertu eta autodeterminazioa, aniztasuna, pertsonak eta feminismoaren aldeko apustua beharrezkoa dela.

Bigarrena, independentziaren aroari ateak ireki behar dizkiogula izango litzateke. Ez dugu gure herriarentzat Madrilena eta Parisen erabakiak hartzea onartzen. Euskal Herriak bere erabakiak hartu behar ditu eta horretarako berme bakarra independentzia dela uste dugunez independentziara heltzeko bidea birdefinitu beharra dago.

Eta hirugarrena, ezker abertzalearen kultura eta praktika politikoa berritzea beharrezkoa dela.

Ondorio hauei beharrezko sakontasunarekin erantzuteko beharrezkotzat jo dugu birfundatzea.

Zein da prozesuaren azken helburua?

Ezker abertzaleak dituen helburuak lortu ahal izateko tres-



na eta estrategia eraginkorrak adostea ezkerretik eta independentista sentitzen garen guztion artean.

Lasarte-Oriari dagokionez, gure herriaren diagnostika egin nahi dugu. Zein behar daude gure herrian? Nolako herria nahi dugu? Zer egin genezake? Herrian Sortuk bete beharrek funtzioaren inguruan hitz egin eta erabakiak hartzeko ere balio behar du birfundazioak.

Hausnarketa kolektiboa eta militantzia eredu berriak sortzearen garrantziaz hitz egin zen Gora Herria ekimenaren aurkezpenean. Zer esan nahi du horrek?

Euskal Herrian jende aditua eta oso formatua dugu bizitzako zein gizarteko esparru ezberdinetan. Potentzialtasun horri forma ematen asmatu behar dugu, gairik gai eztabaidarako espazioak sortu behar dira. Bakoitza eguneroan ari garen lan arlo horretatik independentziara iristeko bidea elikatu beharko genuke.

Hau da, guztiok ontzi berean arraunean ari garela sentitu eta ulertzea ezinbestekoa da helburuetara heltzeko. Sorturen egitura eta funtzionatzeko modua errotik aldatuko dira prozesu honen amaieran.

Aldi berean “konfiantza berreskuratu, eraginkortasuna eta sinesgarritasuna” aipatu zuten. Nola berreskuratu nahi dira hauek?

Politikarekiko urruntasuna eta ezkortasuna zabaldua dago jendartean. Baina guk proiektu politiko sinesgarri eta herritar bat jarri nahi dugu mahai gainean. Azpitik eta ezkerretik, auzolanean, herritarron beharrei erantzuteko proiektu ezberdinak martxan jarriko dituen. Eta hau nola? Bada, noski, ahalik eta jende gehienaren parte hartzearekin. Argi daukagu guztion parte hartzea dela ditugun arazoei erantzun egokiak emateko biderik eraginkorrena.

Prozesu hau irekia izango da? Herritarrek parte hartu

ahal izango dute?

Prozesuaren ezaugarri nagusiak gardentasuna eta parte hartzea izango dira. Aukera berdintasunerako baldintzak jarriko dira eta erabaki guztiak modu demokratikoan hartuko dira. Prozesu honetan parte hartu nahi duen herritar ezkerretik eta independentista orok du horretarako aukera. Baldintza bakarra dago, parte hartzeko aurretiaz akreditatzea, hau da, izena ematea. Akreditazioa online, www.parthartu.sortu.eus webgunean egin daiteke, edo presentzialki bestela, urriaren 19tik azaroaren 23 bitartean, asteazkenero, arratsaldeko 19:00etatik 20:00ak arte Xirimiri Elkartearen.

Behin akreditatuz gero, prozesuari buruzko informazioa jasoko da, eztabaidetan parte hartu ahaliko da eta bozka eskubidea izango da, beti ere norberak nahiago duen moduan online edo presentzialki.

Lasarte-Oriaren zein da egutegia?

Herrian hiru batzar aurreikusten ditugu. Lehena, datorren urriaren 19an egingo dugu Xirimiri elkartearen arratsaldeko 19:00etan. Bertan azalduko dira birfundazioaren nondik norakoak xehetasunez, eta ondoren, jendearen iritzia eta aportazioek ere lekua izango dute.

Hurrengo batzarrak berriz azaroaren 16an eta urtarrilaren 18an burutuko ditugu, leku eta ordutegi berean. Gure herria ezkerretik eraiki eta independentziarako bidea egin nahi duen lasarteoriatar guztiak animatzen ditugu birfundazio prozesu honetan parte hartzera!!!



Irten armairutik!
Euskararen 9. Maratoia

16 egun falta dira!

Lagundu nahi duzu?

Otorduak, txosna, “i” gunea, argazkiak atera... edota letxuza garbitzen ere!

Txandak ikusi eta hartzeko: izenhartzea.euskararenmaratoia.eus edo Ttakunen Bulegoan